



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
Carmelo Ayoroa Hualde
María Izaskun Altxu Ariztegi

2015eko uztailaren 13an, 19:30etan, Aparteko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. BILEREN ALDIZKOTASUNA.

Ohiko bilkurak egiteko aldizkotasunari buruz eztabaidatu da eta aho batez erabaki da hilabeteen behin egitea, azkeneko ostegunean, arratsaldeko 19:30etan.

3. KOMISIOAK.

Jarraian, aipatzen diren gaietaz arduratuko diren zinegotziak izendatu dituzte aho batez:

Hirigintza: Francisco Javier Bereau Miquelarena, Jagoba Manterola Ruiz, Carmelo Ayoroa Hualde eta José María Alzuri Vertiz.

Mendiak: José María Alzuri Vertiz eta Carmelo Ayoroa Hualde.

Euskara, Kultura eta Gazteria: María Izaskun Altxu Ariztegi, Mikel Gereka Zelaia eta Francisco Javier Bereau Miquelarena.

Hezkuntza: Mikel Gereka Zelaia.

Gizarte zerbitzuak, inmigrazioa eta emakumea: María Izaskun Altxu Ariztegi eta Jagoba Manterola Ruiz.

Osasuna: María Izaskun Altxu Ariztegi eta Jagoba Manterola Ruiz.

Alkateak parte hartuko du batzorde guztietan.

Carmelo Ayoroa sartu da.

4. ORDEZKAPENAK.

Ondoren, Iturengo Udala ordezkatzuko duten zinegotziak izendatu dira aho batez:

Malerrekako Mankomunitatea:

- Batzar Orokorra:

Ordezkarriak: María José Bereau Baleztena eta Jagoba Manterola Ruiz.

Ordezkoak: Mikel Gereka Zelaia eta José María Alzuri Vertiz.

- Goi ur-hornidura kudeatzeko Erakunde Autonomoa:

Ordezkarria: María José Bereau Baleztena.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Ordezkoa: José María Alzuri Vertiz.

- Euskara Batzordea: Mikel Gereka Zelaia eta María María Izaskun Altxu Ariztegi .
- Zaborren Batzordea: Mikel Gereka Zelaia eta José María Alzuri Vertiz.
- Gizarte Zerbitzuen Batzordea: Jagoba Manterola Ruiz eta María José Bereau Baleztena.
- Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Patronatua: María José Bereau Baleztena eta Jagoba Manterola Ruiz.

Cederna-Garalur, Malerreka Agenda 21 eta Baztan-Bidasoa Eskualdean turismoaren garapena:

Ordezkarria: Jagoba Manterola Ruiz.

Ordezkoa: María José Bereau Baleztena.

5. ALKATEORDEZKOA.

Alkateak emandako ebazpen honen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2015eko uztailaren 10ekoa, Jagoba Manterola Ruiz alkateordezkotzat izendatu zuena.

6. ALKATE ETA ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 75. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen 21/2014 Foru Legearen 7. artikulua kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. Udaleko alkatea dedikazio partzalean ariko da bere karguan; 720 ordu izanen dira urtean, eta horren ordainean 9.766,96 euroko soldata gordina bilduko du urtean, hamalau hilekotan banatuta, bakoitza 697,64 eurokoa. Zenbateko horiei PFEZari dagozkion atxikipenak aplikatuko zaizkie, baita Gizarte Segurantzaren behargin kuota ere; Udalaren kontura izanen da, berriz, Gizarte Segurantzaren enpresa kuota; behar den alta eskatuko da erakunde horretan.

2. Zinegotziendako urtean 400,00 euroko kalte-ordaina edo ordaina ezartzea, karguaren betebeharrak betetzeko, hau da osoko bilkuretan eta organo kolegiatuen bilkuretan parte hartzeagatik. Diru kopuru horri PFEZko atxikipena ezarriko zaio.

3. Zenbateko horiek eguneratuz joango dira, Nafarroako Gobernuak Udaleko kideen gastuetarako ematen duen diru-laguntza handitu ahalean.

4. Orobat, beren karguan aritzean dieta eta joan-etorriengatik sortzen diren gastuak ordainduko zaizkie Udalbatzako kideei, horiek frogatu eta behar diren ordainagiriak aurkeztu ondoren.

5. Erabaki honek atzera eragina izanen du, 2015eko ekainaren 13tik aitzina.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

6. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren Iragarki-taulan argitaratzea.

7. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

2015eko urtarrilaren 29an aurkeztu zuen Gas Navarra SAK lizentzia eskaera, MOP 4 Bar-eko banaketa sarearen eta antenaren proiekturako Iturengo udal mugapean, Iturengo, Latsagako eta Aurtizko herriguneetan. Apirilaren 30ean aurkeztu zuen sustatzaileak dokumentazio osagarria Nafarroako Gobernuan, aldaketa batzuk proposatuz eta ukipenen azterlan bat, osoa, aurkeztu zuen. Julian Díez Gómez da proiektua egin duen injinerua.

Espedientea abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren 2C eranskineko I) epigrafean sartua dago. Foru dekretu horrek Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zuen. Gainera, 93/2006 Foru Dekretuaren 31.2 artikulua ezartzen du Ingurumen ukipenentarako baimenak lurzoru urbanizaezinean baimentzen ahal diren jardueretarako ere bilduko duela, eta horrek Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 117. artikuluan ezarritako ondorioak izanen dituela.

Ingurumen ukipenentarako baimena eman zuen Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariak, maiatzaren 22ko 204E/2015 Ebazpenean, zenbait baldintzen menpe.

María Urmeneta eta Francisco Javier Chocarro arkitektoek txosten teknikoak eman zituzten martxoaren 20an, 23an eta uztailaren 2an.

Aipatutako aurrekariak ikusirik, aho batez erabaki da:

1. Obrak egiteko lizentzia ematea Gas Navarra SARI, MOP 4 Bar-eko banaketa sarearen eta antenaren proiekturako Iturengo, Latsagako eta Aurtizko herriguneetan, Iturengo udal mugapean. Lizentzia hurrengo baldintza hauen menpe egonen da:

- 204E/2015 Ebazpenean jartzen diren baldintza guztiak betetzea (hirigintza arlokoak, ingurumen arlokoak eta 3.000 euroko fidantza jartzea).
- Zoladura berriak jarri baino lehen, baimena eskatzea Udalari, materialak onar ditzan.
- Iturengo herriguneko eta Aurtizko auzoko gas-sareei loturak egiteko tasa arautzen duen ordenantza fiskala betetzea (2013ko otsailaren 8ko NAO-n argitaratua).
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 276.633,22 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 8.299 euro.
- Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispentako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen 23/2011 Foru Dekretuko 3., 4. eta 6. artikulua bete: obra egin behar duen enpresa, eraikuntza eta eraispentako hondakinen edukitzailerak diren eraikitzaileen erregistroan inskribatua dagoela egiaztatu, edo 1.000 euroko fidantza edo bankuko abal bat aurkeztu.
- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea; espediente zigortzailea irekiko zaie, lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

2. Akordio hau jakinaraztea interesatuari.

8. TOKI-AZPIEGITUREN PLANGINTZA 2009-2012.

2009-2012 Toki Azpiegituren Plangintzan 2 obra sartzeko eskatu zuen Iturengo Udalak: *Amezti* eta *Arrutolako* bideen hobekuntza eta Iturengo ur-depositu berria eta haren bidea. Toki Azpiegituren Plangintza hura luzatuz joan da eta 2 obra horiei diru-laguntza eman ahal izateko, finantza-plana berria aurkeztea eskatu du Toki Administrazioako Zuzendaritza Orokorrak. Inbertsioaren zenbateko osoa, 442.582,14 eurokoa da.

Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1. *Amezti* eta *Arrutolako* bideen hobekuntza eta Iturengo ur-depositu berria eta haren bidea izeneko obrak egiteko finantza-plana onestea. Hauek dira inbertsioa finantzatzeko jarri diren iturriak: Nafarroako Gobernuak diru-laguntza, BEZaren berreskuratzea, diruzaintza-soberakina, kontribuzio bereziak eta mailegua.

2. Erabaki hau jakinaraztea Toki Administrazioako Zuzendaritza Orokorrari.

Obrak eta kontribuzio bereziei buruzko informazioa emateko batzarra antolatuko da, informazio zehatza dagoenean.

9. MITXELTENEBORDAKO ZUBIA.

Mitxeltenekoborda baserri aldera joateko zubia dago Ezkurra errekaaren gainean. Zubi horren pareta bat eroria dago eta arriskutsua da toki horretatik ibiltzea. Zubia konpondu baino lehen, Bianako Printzea Erakundeari txostena eskatzea erabaki da, zubia konpontzeko alternatibak emateko eskatuz.

Konponketa egiten den bitartean, zerbait jarriko da zubian arriskuaz ohartarazteko.

10. 2014KO KONTUAK.

2015eko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran adostasun txostena eman zitzaion 2014ko ekitaldiko kontuei. Espedientea jendaurrean egon da eta ez du inork erreklamaziorik egin. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 273. artikuluan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aho batez onartu dira 2014ko ekitaldiko kontuak.

11. ZENBAIT ESKAERA.

1. 2014ko abenduaren 17ko Osoko Bilkuran aztertu zuen Udalak *Amezti*ko bizilagun batzuk aurkeztu zuten idazkia, I.B.M.k bere kabuz *Amezti*ko bidean botatako brearen kostua ez ordaintzea hartutako erabakiari buruz (abuztuaren 28koa). Idatzi hartan eskatu zuten egindako konponketaren kostua Udalak ordaintzea osorik edo laguntza bat ematea edo, Udalak ez balu



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

kostua ordaintzen, 2015eko auzolanetik deskontatzea diru-kopuru hori, ordaindu zuten *Ameztiako* bizilagunei.

Osoko Bilkura hartan hartutako erabakian ez ziren auzolanak aipatu eta B. jaunak galdetu du nola gelditzen den afera, hau da, ea ordaindu zuten bizilagunei 2015eko auzolanak egintzat emanen zaien.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da auzolanak ez konpentsatzea eta 2014ko abuztuaren 28an eta abenduaren 17an hartutako erabakiak berrestea.

2. Alkateak adierazi du J.A.U.J.k esan zuela Udaletxean, *Iturriondoko labaderoa* garbitzen duela urtean zehar eta eskatu zuela auzolantzat hartzea lan horiek. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da lan horiek ez hartzea auzolantzat arrazoi hauengatik: Udalak erabakitzen du auzolana non eta nola egin; edozein kasutan, lanak egin baino lehen abisatu beharko luke, Udal ordezkariak egiaztatzeko gero egindako lana.

Alkateak esan du, auzolanak arautzeko ordenantza berri baten zirriborroa aztertuko dela hurrengo bilkuran.

3. I.B.M.k pikete eta alambrearekin egindako itxitura legeztatzea erabaki da aho batez. 2 poligonoko 133 partzelan egin zuen itxitura. Baldintza hauek bete beharko ditu B. jaunak: hirugarrenen eskubideak errespetatu behar dira eta lurzati komunalak eta bideak itxia debekatua dago.

4. Idazkariak irakurri du V. eta J.B.M.k aurkeztu zuten idatzia. Bertan eskatzen dute Udalak ordaintzea beraien 2 etxebizitzetan ur-kontadoreak jartzeko fakturak. 2 etxebizitzak eraikitzeke lizentzien espedienteak aztertu dira eta 2010 urtean egindako ur-kontadoreen ikuskapenaren espedientea baita. Hauek dira eskaerarekin lotura daukaten agiriak:

- 1998ko azaroaren 12an eman zitzairen B. jaunei etxebizitzak eraikitzeke lizentziak, C.U. arkitektoak egindako proiektuen arabera. Bi proiektu haietako aurrekontuan sartuak daude lotura ur-hornidurako sare orokorrera eta ur-kontadorea (10. orrialdea).

- 2010eko urtarrilaren 19an jakinarazi zitzairen B. jaunei bi etxebizitzak ur-kontadorerik gabe zeudela, eta aukera eman zitzairen kontadoreak Udalak kontratatutako iturginarekin jartzeko. Baldintzak ziren: kontadorea bera, 13 milimetrokoa, Udalaren kontura eta jartzearen kostea jabeen kontura. Lanak beste iturgin batekin egin nahi izanez gero, Udalak emango luke 13 milimetroko kontadorea.

- B. jaunek eskatu zuten 25 milimetroko ur-kontadoreak jartzea Udalarentzat lan egin zuen iturginak.

- Iturginak B. jaunei egindako fakturetan sartu zuena da: kontadore handiagoaren gainkostea eta instalazioa.

Aipatutako aurrekinak kontutan hartuz, aho batez erabaki da V. eta J.B.M.k eskatutakoa ukatzea, Udalari ez dagokiolako faktura haiek ordaintzea. Gainera, ohartarazten zaie Udalak ez



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

zaukala 13 milimetroko kontadorea ordaintzeko obligaziorik ere, etxebizitzak eraikitzerakoan jarriari egon behar luketelako.

5. Herriko bestetan salmenta postuak jartzeko eskaerak daudela ikusirik, gaia arautzea erabaki da eta hauek dira adostutako arauak:

- Postua jartzeko baimena sinatuko die alkateak egun bakoitzean etortzen diren saltzaileei edo atrakzioa jarri nahi duten guztiei.

- Prezio hauek kobratuko dira eguneko: salmenta postua, 10 euro/eguna; tiro-pitxon eta janaria saltzen duten postuak, 50 euro/eguna; ohe elastikoak eta antzeko atrakzioak, 30 euro/eguna. Azkeneko hauek Latsagako bidean dagoen parkean kokatu beharko dira.

- Kontrolatu eta kobratzeko arduradunak izanen dira Mikel Gereka, Izaskun Altzu eta alkatea.

6. Kontsultategiaren atzealdean dagoen zubitxoari baranda jartzea eskatu du Ainhoa San Martin Etxartek, arriskutsua dagoelako babesik gabe. Eztabaidatu ondoren, baranda jartzea erabaki da aho batez.

12. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2015eko maiatzaren 13koa, hirigintza hitzarmenaren ez betetzearen inguruan irekitako ondare-erantzukizun espedientea artxibatzea erabaki zuena; 2015eko maiatzaren 13koa, X.I.k, "PROMOCIONES LINDUTX BAZTAN, S.L." enpresaren izenean, eskatutako ondare-erantzukizun espedientea irekitzea erabaki zuena; 2015eko maiatzaren 13koa, non erabaki zen A.Z. letratuari eskatzea txosten juridikoa, ondare-erantzukizun erreklamazio horri buruz; 2015eko maiatzaren 19koa, J.L.D.i baimena eman ziona, zirku emanaldia egiteko Kapillan; 2015eko maiatzaren 22koa, Bartzelonako Agrupamiento Scout Martin Luther Kingeri baimena eman ziona, Udaletxeko ganbara erabiltzeko gau bat pasatzeko; 2015eko ekainaren 4koa, S.G.ri baimena eman ziona, *Jostunea* etxean obrak egiteko lizentzia aldatzeko; 2015eko ekainaren 4koa, L.G.ri lizentzia eman ziona, *Aizpurualdea* 2. eskuina etxebizitzan gela bat handitzeko; 2015eko ekainaren 5koa, J.M.A.ri lizentzia eman ziona, *Matxatxipikobordako* teilatua konpontzeko; 2015eko ekainaren 23koa, L.S.ri lizentzia eman ziona, *Txisternea* etxearen atzealdeko lursailean egurrezko hesia jartzeko; 2015eko ekainaren 23koa, A.I.ri lizentzia eman ziona, *Armaxea* etxean 2 komunak eraberritzeko; 2015eko uztailaren 9koa, T.A. eta M.R.S.i lizentzia eman ziona, *Eguzkialdea* etxeko fatxadak eta teilatua eraberritzeko; 2015eko uztailaren 9koa, T.A.ri lizentzia eman ziona, *Eguzkialdea* etxeko leihoak aldatzeko; 2015eko uztailaren 9koa, M.R.S.i lizentzia eman ziona, *Eguzkialdea* etxeko leihoak aldatzeko.

13. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.2 c) eta 74. artikuluek xedatzen dutena kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. "2015eko KANPAINAN ITURENGO U.B.an BURUTU BEHAR DIREN BASO LANEN PROIEKTUA" izeneko agirian dauden lanak kontratatzeko funtsezko



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

baldintzak onestea, komunitate-publizitaterik gabeko prozedura negoziatua jarraituz. Lanen aurrekontua 11.123,24 eurokoa da (gehi BEZa).

2. Proposamenak aurkezteko gonbidapenak bidaltzea 4 enpresa hauei: Excavaciones Joarbe, SL, Pako Altzuri SL, Sasoi Erikuntzak SL eta Excavaciones Mikel Ubiria SL.

2. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Kantauriko Ur-Konderazioaren ebazpena, 2015eko maiatzaren 27koa, Gas Navarra SAri baimena eman ziona, gas banaketa sarea jartzeko Iturengo, Latsagako eta Aurtizko herriguneetan; 2015eko mozketa plangintza egitea eskatu zaio Nafarroako Gobernuari; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak — J.M.S., J.M.A., J.M.G., J.M.A., T.M. eta I.B.ri—; Turismo eta Merkataritzako zuzendari orokorraren 146/2015 Ebazpena, kategoria aldatu ziona Altxunea Erretegiari; Lurraldearen Antolamendu, Mugikortasun eta Etxebizitzako zuzendari orokorraren 458/2015 Ebazpena, hertsatzeko isuna jarri ziona J.A.E.ri; Malerrekako Mankomunitateak egin duen DVDA; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen esplotazioen erregistroan izandako mugimenduak —A.G., V.M. eta M.J.M.ren bajak eta I.G. eta I.J.A.ren altak—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuko ikuskariak egindako akta eskolako jangelari buruz; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak bidalitako idatzia amorraren aurkako txertoari buruz; Cederna-Garalurreko hauteskunde prozesua.

3. NUKF eta La Caixak ematen duten diru-laguntza eskatuko da, hiri eremuak berreskuratzeko. Jakinaren gainean geratu da Udalbatza.

4. Jarraian, gai hauen berri eman du Mikel Gerekak:

- Malerreka Trukerreka. Armairu bat liburuekin jarri behar dute estalpean, elkartrukea egiteko.
- Komenigarria ikusten du kartelak jartzeko tokiak prestazea. Egitea erabaki da.
- Nafarroako Gobernuak ez du oraindik jarri kartelik zohikaztegia.
- “Karnizeria” izeneko eraikuntza egoera txarrean dago. Konpontzeko diru-laguntzak lortzeko aukerak kontsultatuko dira Cederna-Garalurrekin.
- Proiektagailu baten aurrekontua eskatzea proposatu du.

5. José María Alzurik gai hauek aipatu ditu:

- Aurtizko frontoiaren ondoan eta parkean zabor edukiontziak edo paperontziak jartzea eskatu diote. Paperontzi eder batzuk jartzea erabaki da.
- Itxiturak kentzeko beharra dago zenbait landaketetan: *Totolaz*, *Ibirta* eta *Plantazelaieta*.

Eta bertzerik ezean, 23:00ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.